08. Kalea espazio publiko gisa

1. Sarrera. Kalea zera da: Hiri-lurzoruko espazio publikoen sareko elementu lineala (pribatuak ere egon badaude). Kalea euskal inkontziente kolektiboan: Elizatea “kalea” da; baserriaren kontrakoa, zerbait ezezkor moduan (“kale egin”, “kalekume”). Adibideak: Urkiolako baserria eta Orozkoko Ibarra elizatea.

2. Kalea Neolitikoko giza-asmakizuna da. Catal Huyuk-en (K.a. 6.500) ez zegoen. Lehen kalea: Choirokoitia (K.a. 6.000, Txipre, UNESCOk gizateriaren ondare izendatua).

3. Kalearen oinarrizko elementuak
    - Eraikin-lerroa eta eraikinen luzera. Eraikinen erlaitzak kalearekiko elkartzut edo paralelo (Gruberren marrazkiak); Londreseko *Regent Street*, John Nash, 1811; Krier, 22x22 metroko etxe-irlak, Bartzelona.
    - Arkupeak, portikoak edo atariak. Adibidea: Timgad (Argelia) eta Palmirako (Siria) kardo eta dekumano maximoak; Isolani etxea, Bologna, XIII.
    - Hiri-zerbitzuak eroateko hoditeria. Adibidea: Paris zerbitzuak sartu baino lehenago, eta geroago (1863).
    - Zuhaitzak eta hiri-altzariak. Adibidea: Adolphe Alphanden *Les Promenades de Paris*, 1867-73.
    - Espaloiak eta zoladura. Adibideak: Ponpeiako harrizko zoladura; Zurezko zoladurak (Eslaboen Meissen, Alemania, K.a. 1.000; Nicolson sistema, 1859); Dimitris Pikionis, Atenasko Akropolira doan Bide Panatinaikoko zoladura, 1951-57.

4. Kalea ez da soilik leku batetik bestera joateko hiri-elementua:
    - Kalea prozesio-bide gisa. Adibidea: Bide Panatinaikoa, Atenas; Teotihuacaneko Ilargiaren piramidera doan kalea; Aste Santua Huelvan; Errosarioko prozesioa, Gasteiz; Presoen aldeko ostiraleroko manifestazioa, Donostia.
    - Kalea merkatu gisa. Adibideak: Chipping Campden merkatu-hiria (1627ko merkatua), Gloucestershire, Ingalaterra; *Royal Mile* kalea, Edinburgh, Eskozia.
    - Kalea antzezpen-espazio edo antzerki gisa. Are gehiago, kalea erabili da antzerkirako metafora gisa: Sebastiano Serlioren ezenatoki komikoa eta ezenatoki tragikoa, 1537; Vicenzako Antzerki Olinpikoa (1580, Andrea Palladio; 1587, Vicenzo Scamozzi).
    - Kalea zubi gisa. Adibideak: Old London Bridge, 1750ko irudiak; Pariseko La Cite irlarako zubiak; Firenzeko Ponte Vecchio, 1345; Zaha Hadid, Londres, 1996.
    - Kale estalia. Adibidea: Esfahaneko bazarra, Iran, XVII. mendekoa; Vittorio Emanuele IIaren galeria, Milano, Giuseppe Mengoni, 1861.
    - Kale jasoa. Adibideak: Leonardo da Vinci, 1485; NeoTokyo, 2.030, Akira; Candilis, Josic eta Woods, Tolouse Le Mirail; Alexandra Road, Londres, Neave Brown, 1968.

5. Mugimendu Modernoa eta kalearen desagertzea.
    - Le Corbusierren “mort de la rue”; Bijlmermeer auzunea, Amsterdam.